

**Inklusiorako
eta Diru-Sarrerak
bermatzeko
Euskal Sistemaren
Lege-erreformaren
azterketa**
**DSBEREN ARLOKO
ALDAKETA NAGUSIAK**

2023ko otsaila

DSPE



AZTERKETA

2023ko urtarila

AURKIBIDEA

04	SARRERA
05	TESTUINGURUA ETA ZIOEN AZALPENA
06	DIGITALIZAZIOA
08	HIZKUNTZAK
09	PRESTAZIOEN ETA LAGUNTZEN IZAERA ETA BALDINTZAK
11	BIZIKIDETZA-UNITATEAK
12	PRESTAZIOEN ZENBATEKOAK
16	ALDAKETAK ETXEBIZITZAREN ARLOAN
18	GAZTEEN GAINEKO ERAGINAK
20	MATXISMO INSTITUZIONALA
22	MIGRAZIOA ETA ASILO- ETA BABES-ESTATUSA DUTEN PERTSONAK
24	INKLUSIOAREN ARLOKO EBALUAZIO, IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ORGANOAK
24	ESKUBIDEAREN ETETEA ETA IRAUNGITZEA
25	ZIGOR ARAUBIDEA
29	ONDORIOAK

SARRERA

Dokumentu honetan, Inklusiorako eta Diru Sarrerek Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea aztertzen da, Eusko Legebiltzarrak 2022ko abenduaren 22an onartu zuena. Babes sozialera bideratutako prestazio ekonomikoei dagokion legea, batez ere DSBEn buruzkoa. Lehen hurbilketa bat da, eta LABen aurretik egindako lanetik abiatzen dena; izan ere, urteak dira araudi hori eztabaidatzeko eta eraikitzeko prozesuan laguntzen eta parte hartzen aritu garela modu aktiboan.

Lege berria 9 titulutan, 151 artikulutan, 7 xedapen gehigarritan, 7 xedapen iragankorretan, xedapen indargabetzaile batean eta azken 4 xedapenetan egituratzen da. Lege horren helburua da egungo babes sozialerako eta inklusiorako sistema arautzea, funtsezko aldaketak proposatuz askotariko eremutan, eta abenduaren 23ko 18/2008 Legea indargabetuz; aurrekontu-legeen bidez egindako aldaketak gorabehera, orain arte EAEn DSBE arautzen duena.

Azterlan honen helburua da legeak ezarritako eskubideen atzerakadarekin lotutako puntu kezkagarrienak nabarmentzea, eta, horrela, LABk babes sozialaren arloan dituen planteamendu eta ekintza soziosindikalak indartzen laguntzea. Azterlan hau, beraz, Ekintza Soziala sailak bultzatu du; aldez aurretik, baina, sektorean lan egiten duten gure delegatu eta afiliatuei bidali zaie, ezagutzen baitituzte sisteman jada dauden zailtasunak, lege berriak larriagotuko dituenak.

Erreformen arreta merezi duten puntuak ugariak direnez, azterlan hau LABen ekintzarako interes berezia duten gai-eremuetan banatuta dago, eta proposatutako arau-aldaketek nola eragiten dieten aztertzen da. Ikerketa bat ez ezik, lanerako dokumentu bat ere bada, horregatik gaika banatuz informazioa bilatzen erraztea du asmoa; errealitatearen arabera, langileen eskubideen defentsan jarduten dugun esparruetan kokatzea eskatzen baitugu.

Horregatik, hasiera batean, legearen zioen azalpenarekin eta xedearekin lotutako gogoeta orokor laburrak daude. Jarraian, bereziki kezkagarritzat jotzen ditugun gaiak plazaratzen ditugu; eta, ondoren, araudiaren filosofiari lotutako ondorio zenbaitekin bukatuko dugu: eskubide-murrizketak, prestazio sozialak jasotzen dituzten pertsonen jazarpen eta diskriminazioa, pobreziaaren kriminalizazioa, esaterako.

Azkenik, erreforma zabal horrek Euskal Herriko lurraldearen zati batean bizi diren pertsonen bizi- eta lan-dimentsioei eragingo dienez, azterlan honek ekarpen txiki bat egin nahi dio LABen ekintza sozioindikalaren plangintzari. Izan ere, erabat mugatua eta murriztailea den politika honen inpaktuak zuzenean eragingo du euskal langileen pobretze eta bazterketa gero eta handiagoari aurre egiteko orduan ■



■ TESTUINGURUA ETA ZIOEN AZALPENA

Legeak zioen azalpena hasten du adieraziz Inklusiorako eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema autogobernuaren ezaugarri nagusietako bat bihurtu dela. Sistema honi buruz “arrakasta kolektiboa” dela eta “gure mugetatik kanpo erreferente” dela esateko ausardiatik abiatzen da legea, baina ez du jakitera ematen, 2020eko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren (PGDI) datuen arabera¹, 30 urtetik gorako garapenaren ondoren ere, benetako pobrezia-arriskuan dauden 100 pertsonatik 30 babes-sistematik kanpo geratzen direla eta 37 pobrezia-egoeran jarraitzen dutela.

Gainera, legearen arabera babesa behar duten pertsonen kopurua handitzea eragin duten faktoreen artean, honako hau aipatzen da: “migratzaileen baliabide falta”. Ez litzake, baina, lan-aukerarik eta baliabide publikorik eza izango? Alegia, espainiar estatuko Atzerriartasun Legeak eta mugetako (nekro)politikak bezalako migrazio-politikek eragindako ondorioak duintzeko politika sozialek modu transbertsalean jarduteko ezintasuna? Bada, **legea migrazioa erruduntzat jotzen hasten da, oinarrizko eskubidea izanik ere, langileen pobretzea egotziz, kapitalismoaren ondorio saihestezina denean.**

Legeak COVID-19ak eragindako “krisi soziosanitario eta sozioekonomikoak” ere erabiltzen ditu erreformak egoera berri horretara egokitu nahi duela justifikatzeko. Alabaina, ezkutatu egiten du lege hau sortzeko pandemiaren aurretik zeuden legegintza-ahalegin garrantzitsuak mugitzeko nahikeria politikoa, egiturazkoa baita, eta ez koiunturala. Alderdi hori antzematen da, alde batetik, jarraian zehazten ditugun aldaketen izaeran; eta bestetik, abenduaren 23ko 18/2008 Legea² indargabetzean, aztertzen ari den legearen Xedapen Indargabetzaileetan aurreikusia.

1 Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/informe_epds_2020/es_epds2012/data/INFORME-EPDS-2020.pdf>

2 Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu: <https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2011-15732>

■ DIGITALIZAZIOA

Arreta-eredua

Lege berriak, 4. artikuluan, adierazten du arreta aurrerapen teknologikoaz baliatuko dela eta aurrez aurreko arreta "hala eskatzen denean" bermatuko dela. **Digitalizazioa arau gisa eta presentzialtasuna salbuespen gisa** ezartzen duen aurreikuspena.

Oso larria da, halaber, identifikazio biometrikoko neurriak berrezartzea; hain zuzen ere, prestazioak bide digitaletik kudeatzeak, aspalditik salatzen dugunez³, ez du sarbidea errazten, eta inklusiora bideratu beharko liratekeen politiketan birbazterketa-mekanismo gisa jarduten du.

Prestazio sozialen kudeaketa digitalizatzea ez da kasualitatea. Horren azpian, irisgarritasun-kanalak konplexuagotzeko eta "onuradunen"⁴ eskubideak oztopatzeke asmoa dago.

Burokrazia birtualak baztertu egiten ditu pertsona eta kolektibo espezifikoak, hala nola adinekoak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak eta komunikazio-hizkuntzetan komunikatzen ez diren pertsona migratuak. Era berean, **lanpostuak** eta aurrez aurreko arretarako bulegoak murriztea dakar, hirigune handietan zentralizatuz eta landa-eremuetan bizi direnei zein prekarizatutako langileei sarbidea zailduz, gero eta gehiago zokoratuz eredu urbanozentrikoaren periferietara.

Agertzeko betebeharra

Legearen 30. artikulua ezartzen duenez, DSBE jasotzen dutenei dei egin dakieke Lanbideren bulegoetara joateko, araudi horren 29. artikuluan aurreikusita dagoen **lankidetzaren betebeharra** bete dezaten.

Alde batetik, azpimarratzekoak dira zitazioek sortutako arazoak. Funtsean, zitazio horiek bide digitaletik edo SMS bidez egiten dira **bazterketa digitala oraindik ere presente dagoen errealitatea batean**. Bide telematikoz egiten diren abisuak ulertzen zailak izaten dira, eta askotan ez dira garaiz eta behar bezala iristen. Gainera, epeak direla medio, baliteke jakinarazpenak Correos bidez egiten diren kasuetan, DSBE kobratzeaz gain lan egiten duten pertsonak jasotzera joan ezin izatea edota Lanbidek alde bakarrez ezarritako hitzordura azaldu ezin izatea.

Kontuan hartuta Administrazioak mezua igortze hutsa jakinarazpentzat hartzen dela, lege berriaren arabera, onuraduna adierazitako tokian, egunean eta orduan agertzen ez bada, EAEn bizi ez balitz bezala hartuko da, eta, ondorioz, eten egingo zaio benetako bizilekua. Beraz, **mezu soil bat ez jasotzeak biziraupenerako ezinbesteko gastuak ordaintzeko prestazio bat etetea ekar dezake**.

3 IPAR HEGOIA. Digitalizazioa. XXI. mendeko klase borrokaren jokaleku <<https://www.iparhegoa.eus/formakuntza-soziala/gogoetarako-talaia-zenbaki-guztiak/talaia12-digitalizazioa/>>

4 Azterlan hau lege jakin baten azterketari buruzkoa denez, araudian dagoen terminologiari eustea erabaki da, Administrazio Publikoak erabilitako kontzeptzioa eta hizkuntza neutralak ez direla agerian uzteko. Kontrara, norabide politiko jakin batez kargatuta dago, eta, sotala badirudi ere, diru-sarrerak bermatzeko eskubide subjektiboa baliatzen duten pertsonak "onuradun" gisa izendatzean, egungo babes eta inklusio eredua egituratzen duen oinarri asistentzialista eta filantropikoa erakusten du. LAB ez dator bat ikuspegi horrekin, eta garrantzitsua da agerian uztea eraldatu ahal izateko.

Beste alde batetik, larria da legeak etorkizuneko araudi baten esku uztea bitarteko elektronikoen bidez agertzeko baldintzak. Honek argi uzten du araudi honen digitalizazioak onuradunen betebeharrak bermatu nahian egituratzen dela, baina gutxi arduratzen dela agerraldi digitalak pertsona batzuei mesede egin diezaiekeen balizko salbuespenezko kasuez. Esate baterako, Lanbidek alde bakarrez esleitutako hitzorduan kanpoan dauden edo lanera huts egin ezin duten pertsonen kasuan.

■ HIZKUNTZAK

Arreta-ereduari dagokionez ere, lege berriak aurreikusten du arreta ohiko ingurunean emango dela, “betiere posible eta komenigarria bada”. Kontuan hartuta arreta-ingurunea bulegoen zuzendaritzatik harago doala eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema txertatzen den **lurraldetasun** osoari buruz ari dela, digitalizazioari buruzko atalean aipatutakoaz gain, hizkuntzaren auziak ere kezka sortzen du.

Gure ustez, arreta publikoan erabiltzen den hizkuntza herri baten lurraldetasunaren zati bat ere bada, eta, EHren kasuan, askotarikoa eta anitza dena, eta, beraz, pertsonen ohiko ingurunearen zatitzat hartu beharko litzateke. Zentzu horretan, ez dago aurreikuspenik kolektibo sozial jakin batzuetan nagusi diren **beste hizkuntza batzuk erabiltzeko eskubidea bermatzeko moduari buruz**. Hori da, hain zuzen, pertsona migratuen kasua, askotan, seguruago adierazten dira arabieraz, frantsesez edo ingelesez, esaterako.

Euskararen erabilerari dagokionez, legearen 9. artikulua mugatzen da adieraztera pertsonak ezin direla diskriminatu harremanak izan nahi dituzten hizkuntza ofizialen artean aukeratzera. Aurreikuspen hori ez da nahikoa, mugatua da, eta ez ditu aintzat hartzen pertsonak Administrazio Publikoarekin euskaraz harremantzeko seguru eta babestuta sentitzeko dauden zailtasun eta oztopo historikoak.

Euskararen normalizazioak herri-akordio zabalak behar ditu, eta bada garaia politika publiko eta sozialek Administrazio Publikoaren euskalduntzea behar bezala blindatzeko. Beste behin ere, Eusko Jaurlaritzak aukera galdu du diskriminaziorik ezetik hizkuntza bultzatzeko bidean aurrera egiteko, entzungor eginez hizkuntza-eskubideak funtsezkoak direla jendarteratzean eta komunitate-sentimenduen eraikuntzan.

Titularren eta onuradunen ulertzeko eta ulertua izateko eskubidea 9. artikuluan aurreikusita badago ere, dibertsitate funtzionala duten pertsonen kolektibora mugatzen da, eta horrek **kolektibo zaugarrituen arteko diskriminazioa irudikatzen du, eta eskubideen arteko hierarkizazioa** dakar, inklusiorako batere funtzionala ez dena.

Azken batean, lege berriak ez ditu aurrez aurreko arreta eskubidea zein hizkuntza-eskubideak bermatzen; Administrazioaren eskakizun, aukera eta komenigarritasunaren mende uzten ditu erabat, segurtasun juridiko falta larria eraginez.

■ PRESTAZIOEN ETA LAGUNTZEN IZAERA ETA BALDINTZAK

Lege berriaren arabera, erreforma honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien eskubide subjektiboa da DSBE. **Prestazio ekonomiko osagarria da, subsidiarioa, besterenezina eta mugagabea.**

Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak jasotzeko eskubide subjektiboa ez aitortzea

Bestalde, legeak, 10. artikuluan xedatzen duenez, Gizarte Larrialdietarako Laguntzek (GLL) **diru-laguntza** izaera dute, eskubide subjektibo gisa aitortzeko aurrerapausoak eman beharrean. Horrek esan nahi du prestazio horiek aurrekontuaren arabera direla, eta, beraz, aplikazioan askoz ere aldakorragoak direla. Interes politiko eta ekonomikoen arabera aldatzen dira, eta jakina denez, aurrekontuetan ez dute babes soziala lehenesten.

Legearen 51. artikulua arabera, GLLk aldizkakoak ez diren prestazio ekonomikoak dira, bizikidetz-unitate bateko kideei zuzendutakoak, bizirauteko beharrezkoak diren gastu espezifikoak (arrunt zein apartekoak) aurre egiteko baliabide nahikorik ez dutelako. Horien artean daude alokairu-gastuak; gizarte larrialdi egoeraren aurretik etxebizitza bat erosteko kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak; energia-gastuak (hornidura elektrikoa, gasa eta etxean erabiltzen diren beste erregai batzuk); etxebizitzaren mantentze-gastuak (ura, zaborra, estolderia) eta sistema publikoek bere gain hartzen ez duten osasun-arreta.

Bizitzaren garestitzearekin batera langileen pobretzea ematen ari den honetan, GLLetarako eskubide subjektiboa ez aitortzea erabaki politikoa da, Konstituzioak aitortutako oinarritzko eskubideei badagozkie ere. **Erabaki politiko horrek entzungor egiten dio DSBE jasotzeko baldintza zorrotzak betetzen ez dituztenen diru-sarrerak urriak osatzeko beharrezkoak diren prestazioak direnik.**

Beraz, lege berriak bide ematen du lege-hutsunea iraunarazteko, ez duena babes-sistema hobetzen laguntzen eta, aldi berean, inolako diru-sarrerarik jaso ezin duten pertsonak egotea betikotzen du.

Prestazioen arteko bateragarritasuna, baina Bizitzeko Gutxieneko Diru-Sarreraren (BGDS) lehentasuna

Lege berriaren 11. artikulua ezartzen du Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak bateragarriak izango direla elkarren artean, baina zehazten du lehentasuna duela BGDS aitortzeko eta jasotzeko⁵ izapideek zein DSBEren subsidiarioritasuna eta osagarritasunak.

Ezin da ahaztu, 2020an aurkeztu genuen txostenean adierazi bezala⁶, babes sozialerako egungo tresna Gizarte Segurantzako Sistema Publikoaren bidez egituratzen da nagusiki, kotizaziopeko eta kotizazio gabeko prestazioen bidez. Hala eta guztiz ere, babes sozial horrek kanpoan uzten ditu premia egoeran dauden pertsona asko, sistemaren izaera mugatua da batez

5 Gogoratu behar da Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGDS) Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko gisa sortu dela, kotizazio gabeko modalitatean, maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez; baina abenduaren 20ko 19/2021 Legearen bidez arautzen da, aurreko errege lege-dekretua indargabetzen duena eta isilean ordezkatzeko duena. BGDSren kudeaketaren transferentzia Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain hartzeko 2022ko apirilaren 1etik indarrean dagoen hitzarmenaren bidez gauzatu da.

6 LAB. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentak (DSBE/OE), Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (BGDS) eta Oinarritzko Errenta Unibertsala (OEU), 2020.

ere enpleguan oinarritzen delako. Ez dira aintzat hartzen langabezia-prestazioen agortzea, pentsioa jasotzeko kotizazioak lortzeko zailtasuna edo kotizazio gabeko prestazio bat jasotzeko baldintza ekonomikoak ez betetzea.

Horrek erakusten du **Gizarte Segurantzaren sistemak ez duela unibertsal izateko helburua lortzen**, horrek arrisku eta zaurgarritasun sozioekonomiko egoeran dauden pertsonen ez edukitzea prestazio sozialak eskuratzeko eskubidearen aukera. Hain zuzen ere, Gizarte Segurantzako sistemak bere gain hartzen ez duen eremu horretan sartzen dira autonomia-erkidegoetako diru-sarrerak bermatzeko prestazioak.

Estatuaren eskumena eskumen autonomikora hedatzea

Gogoratu behar da gutxieneko diru-sarreraren errentak laguntza eta zerbitzu sozialen arloko eskumen eskusiboen parte direla. Izan ere, gutxieneko errenta horiek araututa daude gure lurraldean, baina eskumen autonomiko horren izaera eskusiboak, Konstituzio Auzitegiaren epaien arabera, ez du baztertzen Gizarte Segurantzaren sistemak prestazio horiek bere gain hartzeko aukera, "sistema horren babes-jardueraren izaera dinamikoa da eta". Horren ondorioz, Gizarte Segurantzaren prestazio-jarduera ezin da eskusibitatean laguntza sozialaren esku utzi, Autonomia Erkidegoek eskumen horiek baliatzearekin batera gauzatu behar da.

Horrenbestez, BGDSren transferentziarekin ez da Gizarte Segurantzaren deszentralizatu dela, EAJk saldu nahi izan duen bezala, baizik **eta Gizarte Segurantzaren Sistema hedatu dela orain esparru Autonomikoan araututa zegoen eremura**. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra aldatu da (42.1.c. art), sisteman BGDS kotizazio gabeko prestazio gisa sartzeko.

Prestazioen balioari dagokionez, Diru-sarrera Bermatzeko Errenta (DSBE) Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren (BGDS) subsidiarioa izateak eragin eskasa du gure lurraldean, DSBEgatik jasotako zenbatekoak handiagoak baitira, BGDS bere baitan xurgatuz.

BGDSren kudeaketaren transferentziak ere ez du balioko zaurgarritasun-egoeran dauden pertsona gehiagorengana nabarmen zabaltzeko. BGDSren baldintzak murriztaileagoak baitira. 65 urtetik gorakoak eta egoera administratibo irregularrean dauden pertsona migratuak baztertuta daude, gizakien salerosketaren edo indarkeria matxistaren biktima direla egiaztatzen dutenak izan ezik.

Gauzak horrela, EAJren akordioa eskumenen konkurrentzia kudeatzera mugatzen da. Horrek bikoiztasunak eragingo ditu, **Lanbideren errenta tramitazioei konplexutasuna eta burokratizazio handiagoa gehituz**, gehiagotan esan dugunez, jada gainezka zeudenak. Hartzaileen kaltetan.

■ BIZIKIDETZA-UNITATEAK

Bizikidetza-Unitateen muga ezabatzea

Kontuan izan behar da aitortzen den **Bizikidetza-Unitateak (BU) finkatuko duela diru-sarrera konputagarrien maila** DSBEn zenbatekoa zehazterakoan. Hori dela eta, positiboa da etxebizitza bakoitzeko 2 bizikidetza-unitateko muga kentzea.

Hala eta guztiz ere, lege berrian 25.etik 28. Artikulura bitarte adierazitakoa problematikoa da; izan ere, aurreikusten du etxebizitza berean bizi diren pertsonen, odol-ahaidetasuneko eta ezkontza pareko harreman loturarik gabe, pertsona bakarreko Bizikidetza-Unitate (BU) bat baino gehiago edo BU bakar bat eratu ahal izango dutela, erabaki horren ondorioak berariaz zehaztu gabe. Batez ere, jarraian zehaztuko den moduan, etxebizitza berean bizikidetza-unitate bat baino gehiago egonez gero, beheranzko % 15eko indize zuzentzailea aplikatuko delako; aldiz, informazio hori ez da argi ageri atalean.

Era berean, oso larria da, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera, **beste pertsona batekin azken lau urteetan 2 urtez etenik gabe edo etenekin bizitze hutsak ezkontza pareko harremana edo gisakoa dagoela uste izatea**; eta, gainera, harreman hori nola eta zein agentek zehaztuko duen argitu gabe.

Odolkidetasun-maila murriztea

Bizikidetza-unitatea ezaugarritzerakoan elkarrekin bizi diren pertsonen arteko odol-ahaidetasuna eta ezkontza pareko harremana bigarren mailaraino murrizten dela positiboa da, bizi-proiektua partekatzen duten pertsonetara mugatzen baita, bestelako loturak ziurtzat jo gabe

Hala ere, "afinitatea" ezaugarritzen duen zehaztapen faltak odol-ahaidetasuna gailentzea dakar, eta, beraz, **familia monogamoa eta nuklearra ezartzen da babes soziala bermatzeko eredu gisa**, baita inklusiorako eta babes-politika publikoetarako eredu gisa ere.

Hori horrela, lege berriak ez ditu kontuan hartzen dauden beste zaintza eta lotura afektibo batzuk, are gehiago, atzerapauso bat da erreferentzia nagusia seme-alabak dituzten bikoteen bizikidetza egonkorrean oinarritzen baita.

Gainera, zehaztasun-falta horrek zuzeneko ondorioak ditu premiagatik etxebizitza partekatzen duten pertsonengan; errealitate gero eta ohikoagoa; jarraian zehaztuko dugu.

Salbuespenezko Bizikidetza-Unitateak

Positiboa da lege berriak salbuespenezko bizikidetza-unitateen osaera argitzea: gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren, indarkeria matxistaren biktimak, pentsiodunak, dibortziatuak, adopzio-hartzaileak eta etxegabetuak. Hala ere, **aurrerapen hori mugatua da, BUen salbuespenezko modalitate hori ezin izango baita 3 urtetik gorakoa izan**, pentsiodunek osatutakoak izan ezik.

Denbora-mugak zigor bat dakar **harrera solidarioentzat**, batzuetan, eta askotariko arrazoiengatik, aldi hori gaindi dezakete eta. Nabari da, beraz, **pobrezia estigmatizatzea ez ezik, elkartasuna kriminalizatzeko asmoa** ere badagoela, lege berri honen ezaugarri bereizgarria.

■ PRESTAZIOEN ZENBATEKOA

Kuantifikatzeko modu berria: oinarritzko zenbatekoa eta osagarriak

Prestazioak kalkulatzeko modua aldatzeak zerikusia du Bizikidetzeta-Unitateetan (BU) izandako aldaketarekin. Lege berriak oinarritzko zenbateko komun bat ebatziko du BU guztietarako, eta osagarrien sistema bat, banakakoak eta bizikidetzeta-unitatearen ezaugarriei lotutakoak. Terminologia argitze aldera:

Legearen 33. artikulua arabera, **oinarritzko zenbatekoa kopuru finko bat izango da**, pertsona bakarreko etxebizitza batean oinarritzko premiak asetzeko erabiltzen den gutxieneko gastua irudikatzen duena. Oinarritzko zenbatekoaren hileko zenbatekoa EAEko Aurrekontu Orokorren Legearen⁷ bidez finkatuko da, KPIa kontuan hartuz.

Osagarriei dagokienez, legeak 2 mota aurreikusten ditu 34. artikuluan:

Banakako osagarriek bizikidetzeta-unitatearen gastuen banaketa kuantifikatzen dute Bizikidetzeta-Unitatea osatzen duten pertsona kopuruaren arabera. Arau hauen arabera aplikatuko dira:

- Titularra eta bigarren pertsona heldua: oinarritzko zenbatekoaren % 50;
- Gainerako onuradunak: oinarritzko zenbatekoaren % 30.

Bizikidetzeta-Unitatearen (BU) ezaugarriei **lotutako osagarriak**, berriz, honako hauei aplikatuko zaizkie: “guraso bakarreko Bizikidetzeta-Unitateei; gizakien salerosketaren, sexu-esplotazioaren eta indarkeria matxistaren biktimei; pentsiodunei edo % 33ko edo gehiagoko mendekotasuna duten pertsona batek edo gehiagok osatutakoei”; beti ere arrazoi horiengatik pentsiorik jasotzen ez badute. Kasu horietan, osagarriek balio hau izango dute:

- Pentsiodunek osatutako BU: oinarritzko zenbatekoaren % 40;
- Gainerako profilek osatutako BU: oinarritzko zenbatekoaren % 25.

Horrela, 32. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, **oinarritzko zenbatekoa + osagarriak** batuz gero, **bermatutako gehieneko errenta** zehaztuko da. Gehieneko errenta hori, 33. artikulua arabera, banakako onuradun bati dagokion zenbatekoa honako zenbateko hauetatik handiena baino txikiagoa ez izatea bermatuko da:

- Estatistikako Institutu Nazionalak Espainiako Estaturako eginiko Bizi Baldintzen Inkestan argitaratutako **pobrezia-arriskuaren tasa**: lege hori onartu aurreko urteari dagokiona, edo, argitaratuta ez badago, eskuragarri dagoen azken urteari dagokiona.
- Edo Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestari dagozkion diru-sarreraren pobreziaren atalaseen (mantenua) batezbesteko haztatua, etxebizitzaren alokairuari dagozkion gastuak deskontatu ondoren, eskuragarri dagoen azken urteari dagokiona. Adierazle hori gutxienez bi urtean behin lortu eta argitaratuko da.

7 2022ko ekitaldiari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, abenduaren 23ko 11/2021 Legea kontsultatu: <https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-2177>

Pobrezia-arriskuaren tasari dagokionez, eta 2021ko AROPEren datuak⁸ kontuan hartuta, lehenengo puntuak **espainiar estatuko batez besteko errentaren % 60 ezartzen du bermatutako gutxieneko** gisa. Aurrerapausoa dirudi, baina estatu espainiarreko eta EAEko errenta ertainek ez dute antzik. Azken batean, EAEko batez besteko errentaren % 60 1056 eurokoa da, eta espainiar estatukoa, berriz, 795 eurokoa. **Hautu politiko horrek hilean euskal langileek jasoko duten prestazioa 261 eurotan murrizten du.**

Bigarren puntua ere interesgarria da, DSBEn kalkuluari **EAEko pobrezia-erregulazioaren adierazle** bat gehitzen diolako Espainiar estatuko adierazleak bakarrik kontuan hartu beharrean. Izan ere, baxuagoak dira eta ez dute lurralde honetako errealitatea islatzen. Hasiera batean bi adierazle horiek ez zeuden aurreikusita lege-proiektuan, eta, praktikan, legea anbigua da zein adierazle gailenduko den.

Azkenik, lege berriak 35. artikuluan dio DSBEn balioa zehazteko, bermatutako gehieneko errentaren eta bizikidetzak unitatea osatzen duten pertsona guztien errenta eta diru-sarrera erabilgarri guztien arteko aldea hartuko da kontuan. Bizikidetzak unitate bakoitzaren prestazioaren zenbatekoa hiru hilean behin eguneratuko da.

Oraingo erreforman aurreikusitako zenbateko berriak bi fasetan eguneratuko dira. Lehenengoa 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta % 8,5eko igoera izango du. Bigarrenak erreformak biltzen dituen neurri guztiak jasoko ditu, eta apirilean gauzatzea aurreikusten da, araua indarrean jartzean. Hau da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hiru hilabetera.

Hauk izango dira, hortaz, bizikidetzak unitate motaren arabera hileko zenbatekoak:

> DSBEn HILEKO GEHIENKO ZENBATEKOAK, BIZIKIDETZA-UNITATEAREN ARABERA

	2022	2023ko urtarrila [%8,5eko igoera]	2023ko apiriletik aurrera (lege berria)	aldea [2022-2023]
Heldu 1	727€	789 €	800 €	% 10,0
2 heldu	934€	1013 €	1066 €	% 14,2
Heldu 1 + adingabe 1	987€	1070 €	1093 €	% 10,8
2 heldu + adingabe 1	1033€	1121 €	1226 €	% 18,7
Heldu 1 + 2 adingabe	1033€	1178 €	1253 €	% 15,4
2 heldu + 2 adingabe	1033€	1121 €	1386 €	% 34,2
Pentsionista 1	835€	905 €	1013 €	% 21,4
2 pentsionista	1043€	1131 €	1280 €	% 22,7
3 pentsionista	1126€	1222 €	1440 €	% 27,8

Ikus daitekeenez, deigarria da pentsiodunen kasua, **lege berriak uko egin dio kolektibo horren aldarrikapenak aitortzeari: pentsioen hileko 1080 euroko gutxieneko osagarrien aldarrikapena**, esaterako.

Lege berriak ere ez du aintzat hartzen prestazioaren indibidualizazioa pentsio-osagarrien kasuetan, eta horrek ekarriko luke **kotizazio gabeko pentsio** oso txikiak dituzten **emazteek** ere DSBEn kobratzea, senarrak jasotako prestaziotik aparte.

Lanbide Arteko Gutxieneko Soldatarekiko loturarik ez, KPlaren aplikazioa

Ez dago arrazoirik LAGSren erreferentzia sakralizatzeko, Madrilen erabakitako erreferentzia den aldetik, ez baitu igoera-bermerik ekarri (2012. eta 2014. urteak izoztuta), edota igoera eskasak (4 € eta 3 € 2012tik 2013ra eta 2014tik 2015era, hurrenez hurren).

Kezkatzen duena da, adibidez, 2017an, modu interesatuan eta indarrean zegoen legea bera urratuz, KPla (% 1,5) aplikatu zela, hain zuzen ere LAGSren igoera handia izan zen urtean (% 8). Babes sozialaren arloan gertatzen diren arbitrariotasunen beste adibide bat.

2008ko legeak DSBEn zenbatekoa LAGSaren % 88an zehazten du bakarrik bizi diren pertsonentzat, gaur egun, hileko 1026 eurori dagokio gaur-gaurkoz. Lege horrek, ordea, hainbat murrizketa jasan ditu aurrekontuetan, eta, horregatik, 2022an jasotako balioa ez da iritsi legez aurreikusitakora. **Orain, lege berriak KPlari lotutako DSBEn oinarritzko zenbatekoa ezartzen du.**

Zenbatekoen igoera faltsua

Espainiako Gobernuak 2023ko aurrekontu orokorretan Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerari aplikatu dion % 8,5eko igoera kontuan hartuta, pertsona bakar batentzako DSBEn zenbatekoa ia 800 eurokoa izango da hilean.

Pertsona batek 2022an jasotako zenbatekoa kontuan hartuta (727€ hilean), aurrerapen txiki bat eman dezake. Hala ere, 2008ko lege eguneratua aplikatzean lortutako balioekin alderatzen badugu, zenbatekoa hilean 1026 eurokoa izan beharko litzateke. Beraz, **lege berriak** azken urteetan aplikatzen ari ziren **murrizketak betikotzen ditu**:

> 2023an JASOTAKO ZENBATEKOEN ETA 2008ko LEGE EGUNERATUAK AURREIKUSITAKOEN ARTEKO ALDERAKETA

	2023ko apiriletik aurrera	2022ko DSBEn, 2008ko legearen arabera	Alde teorikoa [2022-2023]
Heldu 1	800 €	1026 €	- % 22,1
2 heldu	1066 €	1318 €	-% 19,1
Heldu 1 + adingabe 1	1093 €	1371 €	-% 20,3
2 heldu + adingabe 1	1226 €	1458 €	- % 15,9
Heldu 1 + 2 adingabe	1253 €	1511 €	-% 17,1
2 heldu + 2 adingabe	1386 €	1458 €	-%4,9
Pentsionista 1	1013 €	1166 €	-%13,1
2 pentsionista	1280 €	1458 €	-%12,2
3 pentsionista	1440 €	1575 €	-%8,6

Beraz, igoera faltsu eta eskasa izateaz gain, egungo legeak ezkutatu egiten du 2008ko legea ez aplikatzearen ondorioz

sortutako DSBEn zenbatekoen murrizketa larria. **Lege hori ez zen aintzat hartzen aurrekontu-legeak bitarteko, eta, erreforma hau indarrean jartzen denetik aurrera, indargabetuta geratuko da.**

% 15eko beheranzko indize zuzentzailea

36. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, etxebizitza berean bizikidetz-unitate bat baino gehiago bizi badira, DSBEn onuradun izan edo ez, bizikidetz-unitate bakoitzak hilero jasotzen duen prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko, **dagokion zenbatekoari beheranzko % 15eko indize zuzentzailea aplikatuko zaio.**

Aurreikuspen horrek ez du inolako neurririk eskaintzen bizitzaren garestitzea konpontzeko, eta, aldi berean, arriskuan jartzen ditu **etxebizitzarako, energiarako, elikadura** egokirako eta gazteen **emantzipaziorako** eskubideak. Kapitalaren zirkulazio askea eta jabeen eta enplegatzaileen irabazien defentsa ahalbidetzen diren bitartean, **gero eta pertsona gehiagok pisua partekatu behar dute.**

Neurri horrek, halaber, ez du aintzat hartzen interna bezala lan egiten duten etxeko langileen errealitatea ezta gero eta gehiago sexuaren truke alokatzen diren gelek⁹ eragiten dituzten eskubideen urraketak, batez ere emakumeei eragiten dietelako, eta bereziki, emakume migratuei eta egoera administratibo irregularrean daudenei. Aipatutako eskubideen urraketaz gain, Atzeritar Legeak eta mugetako (nekro)politikek ezarritako arazoak ere biltzen dituen profil soziala, alegia. Estrategia horren ondorioz, emakume horiek ipar globaletako gunen sozial bortitzenak, ikusezinenak eta gutxietsienak okupatzen dituzte, herentzia heteropatriarkalak eta kolonialak dituztenak.

9 Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu: <<https://elpais.com/economia/negocios/2022-06-11/habitacion-a-cambio-de-sexo-como-los-prohibitivos-alquileres-dan-alas-a-la-explotacion.html>> <<https://www.elcorreo.com/sociedad/extienden-euskadi-anuncios-compartir-piso-a-cambio-de-sexo-20220703200010-nt.html>>

■ ALDAKETAK ETXEBIZITZAREN ARLOAN

Errolda

Lege berriak, oro har, eutsi egiten dio azaroaren 24ko 4/2011 Legeak¹⁰ ezarritako murrizketari. Murrizketa horrek eskatutako erroldaren gutxieneko aldia 3 urtera luzatu zuen, pertsona migratuei sarbidea mugatzeko helburuarekin.

Erroldatzeko eskakizuna urtebetera murrizten da, salbuespen gisa eta bakarrik, familia-unitatean % 33ko edo gehiagoko desgaitasun edo mendetasun egoeran dauden seme-alaba adingabeak edo helduak baldin badaude.

Lege-proiektuari dagokionez, azkenik, lege berriak errolda-aldia murrizten die adin txikikoak babes-sistemaren mende egon diren gazteei. Kasu horretan, eskabidea aurkezten dutenetik erroldatuta egon beharko dute eta EAEn izan beharko dute benetako bizileku jarraitua.

Era berean, errefuxiatuen eta asilo-eskatzailleen kasuan, zein indarkeria matxistari edota gizakien salerosketari aurre egin eta bizirik atera direnen kasuan, nahikoa da eskaera egiten den egunean erroldatuta egotea.

Ezin da ahaztu **errolda funtsezko baldintza dela hainbat oinarritzko eskubide eskuratzeko**. Erroldak ematen du sarbidea besteak beste osasungintzara, hezkuntza-sistemara eta atzerriartasun-baimenak erdiesteko. Hala ere, ez dira gutxi arlo honetan salatzen diren diskriminazio eta eskubide-urraketen kasuak.

Ikusmiran¹¹ aldizkariaren azken argitalpenean ikus daitekeenez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako langileek diru-sarrerara garbien % 50 baino gehiago bideratzen dute alokairura. Gainera, interes-tasen eta, hortaz, Euriborraren igoeraren ondorioz, 2022ko urrian hipotekak 200 euro garestitu dira batez beste. Bizitoki-arazoen benetako errealitatea erakusten dute eguneroko ogia diren etxegabetze etengabeak baita gero eta garestiagoa den m² ere.

Guraso bakarreko familiei zein pertsona arrazializatuak edo atzerritar jatorrikoek osatutako familiei etxebizitzak alokatzera edo saltzera ukatzen dira jabeak eta higiezin agentziak. Hori gutxi balitz, errentariari erroldatzeko eskubidea ahalbidetzeagatik alokairuari erantsitako balioak kobratzen dituzte, erroldatzea errentariaren betebeharra dela kontuan hartu gabe. Interna bezala aritzen diren etxeko **langileen** kasuan ere ez da fiskalizaziorik egiten enplegatzaileak lan egiten duten etxebizitzan erroldatu ote dituen egiaztatzeko.

DSBE eskuratzeko baldintza orokor gisa gutxienez 3 urteko erroldatze-aldia mantentzea, beraz, Administrazioaren zigorra da, oinarritzko eskubideak urratzen dituen, arrazakeria estruktural eta instituzionalaz osatua dagoela islatzen duena. Benetako lobby-ak sustatzeaz gain, eta horiek sortzen dituzten merkatu-nitxo informalak, arrisku- eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen jendarte-bazterketa are gehiago areagotzen du.

10 Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu: <<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2011-19608>>

11 IPAR HEGOIA, 2022. Informazio gehiago: <<https://www.iparhegoa.eus/azterketak/ikusmiran/ikusmiran-11-euskal-herriko-langileria-ren-lan-eta-bizi-baldintzak/>>

DSBE eskuratzeko baldintza orokor gisa gutxienez 3 urteko erroldatze-aldia mantentzea, beraz, Administrazioaren zigorra da, oinarritzko eskubideak urratzen dituen, arrazakeria estruktural eta instituzionalaz osatua dagoela islatzen duena. Benetako lobby-ak sustatzeaz gain, eta horiek sortzen dituzten merkatu-nitxo informalak, arrisku- eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen jendarte-bazterketa are gehiago areagotzen du.

Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarria

Etxebizitzako Prestazio Osagarriari (EPO) dagokionez, Lanbidek kudeatzen du, eta DSBE jasotzen duten pertsonen, behin arrisku eta zaurgarritasun-egoera egiaztatuta, etxebizitzarako osagarri ekonomiko bat eskuratzeko aukera ematen die.

Bestalde, gogoratu behar da 2015ean onartu zela EAEn ekainaren 18ko 3/2015 Legea¹², Etxebizitzaren Legea ere esaten zaiona, etxebizitza izateko eskubide efektiboa eskubide subjektibotzat jotzen duena (Administrazioari eska dakiokiena). Horrek esan nahi du eskubidea modu subsidiarioan baino ezin dela ordezkatu, prestazio ekonomiko batekin. Lege horrek, aplikatzeko araudia garatze bidean dagoena, EPOa ezabatzen du DSBEren erregulaziotik.

DSBEri buruzko lege berriak ezartzen du, bigarren xedapen iragankorraren bidez, aldi baterako, alegia, EAEko Etxebizitzari buruzko Legearen araudia indarrean jarri arte, **EPO aplikatzen jarraituko dela**. Lanbideri dagokio horren aitortzea, tramitazioa, aldatzea eta iraungitzea.

Mantenu hori garrantzitsua da, baina **oso larria da EAEko Etxebizitza Legeak geldirik jarraitzea**, Eusko Jaurlaritzak Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala¹³ aurkeztu berri duen bitartean. Itun antisozial bat da, kontserbadorea eta eskasa jabetzaren funtzio soziala eta etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzeko.

Azkenik, 52. artikuluan, lege berriak ezartzen du **larrialdi sozialetarako laguntzak bateragarriak izango direla Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoarekin** (EPE)¹⁴, baldintza arautuen baitan, alokairu-gastuak ordaintzeko direnak izan ezik, horiek ez baitira bateragarriak izango prestazio horrekin. Beste behin ere, argitasunik ezak eta EAEko Etxebizitzaren Legea ez garatu izanagatik araudi-xedapenetara jotzeak hutsune eta segurtasun juridikorik eza sortzen ditu eskubide sozial horiek gauzatzeari begira.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren datuen arabera, EAEko etxebizitzaren prezioak azken urteetako garestienak dira, hiri-buruetako eta metropoli-eremuetako batez besteko prezioa hilean 800 eurokoa da¹⁵. Horrez gain, gaur egun, **EPOk 23.365 etxetan laguntzen du errenta ordaintzen, hau da, etxebizitza alokairuan duten familien % 19ari**. Oinarritzko eskubideak diren errolda edo higiezin kontratua, esaterako, sarritan ukatzen eta merkantilizatzen dira, eta aldaketa horiek bereziki kezkarriak dira.

Izan ere, Inklusiorako eta diru-sarrerak bermatzeko eskubidea aitortzen duen araua eta etxebizitzarako eskubidea aitortzen duen beste bat egon arren, **Eusko Jaurlaritzak EAEko Etxebizitzari buruzko Legea pragmatikoki garatzeko borondate**

12 Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu: <<https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2015-7802>>

13 LAB. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Etxebizitzaren Itun Sozialaren lehen irakurketa: Nafarroako 20/2022 Foru Legearekin alderaketa laburra. Ekintza Soziala, 2022. Prentsa oharra: Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Itun Sozialaren edukia eta forma kritikatu ditugu eta antisozialtzat jo dugu. Hemen eskuragarri: <<https://www.lab.eus/es/criticamos-el-fondo-y-la-forma-del-pacto-social-de-la-vivienda-del-gobierno-vasco-que-calificamos-de-antisocial/>>

14 2015eko Etxebizitzaren Legean ezarrita dago alternatiba gisa, alokairu sozialeko erregimenean etxebizitza babestu bat eskuratzeko eskubidea aitortuta zuten baina eskuragarri ez zeuden pertsonentzat. EPEri buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu ekainaren 18ko 3/2015 Legean xedatutakoa: <https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2015-7802>

15 EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala: etorkizuna eraikitzeak akordioa. Informazio gehiago: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco//contenidos/plan/ovv_administracion1/es_ovv_admi/ovv_administracion1_es.html>

politikorik ez izateak, baita EPEan baldintza murriztaileak mantentzeko asmoak ere, lurralde horretan aitortutako gutxienez 3 eskubide subjektibo urratzen dituzte: etxebizitzarako eskubidea, Inklusiorako eskubidea eta diru-sarrerak bermatzeko eskubidea.

■ GAZTEEN GAINKO ERAGINAK

Titular izateko gutxieneko adina

Lege berriaren 16. artikulua arabera, irizpide orokorrez **sarbidea izateko gutxieneko adina 23tik 18ra pasatzen da.**

Hala ere, Gazteen Euskal Behatokiak¹⁶ jasotako datuen arabera, 2021ean EAEn 25 urtetik beherako pertsonen % 95 baino gehiago ezin da emantzipatu, eta 18-34 urte bitartekoak % 68 ez dago emantzipatuta. **Oso larria da lege berriak betekizun gehigarriak eskatzea gazteek DSBE eskuratu ahal izateko.**

Jendarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden gazteen errealitate gero eta handiagoari aurre egiteko aukera galtzen da, pertsona horien emantzipazio-eskubidea ez bultzatzeaz gain, Eusko Legebiltzarrak onartu berri duen gisan Gazteriaren 2/2022 Legean¹⁷.

Datuetan murgilduz, kontuan hartuz EAEn 2021ean, 18-34 urte bitartean emantzipatutako **emakumeak** gehiago zirela gizonak baino (% 38,1 eta % 27,7, hurrenez hurren), **Administrazioak erabiltzen duen "emantzipazio" kontzeptuan sakonduko dugu, eskubidearen definizioa politikoki lehiatu ahal izateko.**

Izan ere, emantzipazioa bizitza- eta jendarte-egoera desberdinei erantzuten dien prozesu gisa ulertu behar da. HEHan, bizi espektatibak testuinguru soziolaboralak markatuta garatzen dira: lan prekarioen handitzeak pertsonen bizi-baldintzetan ezberdin eragiten dute sexu, genero, klase, arraza eta jatorriaren arabera. **Emantzipatzeko eskubidea modu integral eta intersektzionalean aztertu behar da politika publiko eta sozialetan.**

Pertsona migratu gazteen kasuan, mugetako (nekro)politikak eta Atzerriartasun Legeak egoera larriagotzen dute. Migratzen duten gazte askok etxebizitzak partekatu behar izaten dute edota muturreko lana prekarioak onartu janariaren eta bizilekuaren truke, barne-erregimenean diharduten etxeko langileak, esaterako. EH osoan dauden errealitate horiek eta beste asko kontuan hartuta, litekeena da erakunde publikoek aurkeztutako emantzipazioen zifrek, nahiz eta berariaz kezkarriak izan, prekariedade- eta zaurgarritasun-egoera are gordinagoak ezkutatzea, eta egoera horiek argitu egin behar ditugu.

Bizimodu independentearen frogak

Baldintza orokor guztiez gain, DSBEren lege berriak gazteei baldintza gehigarri hau eskatzen die **18 eta 29 urte bitarteko gazteei**: gutxienez, prestazioa eskatu baino urtebete lehenago beren kabuz bizi direla egiaztatzea.

Aipatu berri dugunaz gain, **18 eta 23 urte bitarteko** gaztei, azken 2 urteetan gutxienez 240 egun kotizatu izanaren baldintza gehitzen zaie, edo bestela, DSBE eskatu aurreko urtean Lanbiden alta emanda egotea.

16 GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA. Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa, 2022. Hemen eskura daiteke: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/noticia/txostena_diagnostikoa_2022/es_def/adjuntos/diagnostikoa_emantzipazioa_2022_c.pdf>

17 Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu: <https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-8832>

Baldintza hauek zailtasun gehigarriak dira, eta **autonomoki bizitza-proiektuak eraiki ezin dituzten gazteen prekarietatea luzatzen du**. Lege berriaren oinarrian hautu politiko kontserbadorea dago, zeinaren arabera familia hartzen den babes sozialerako oinarritzko erakunde gisa. Erabaki horrek alboratzen du, osotasunaren parte diren arren, gazteen eta euskal jendartearen dauden familien zein afektu- eta elkarrekiko babes-sareen aniztasuna; eta ez dute onarpen- eta eskubide-maila bera eskuratzen.

Bereziki gazte migratuengan edota egoera administratibo irregularrean daudenengan pentsatuta, betekizun hori are zitalagoa da, babesik gabeko baldintzak, kaleko egoera eta prekarietatea betikotzen dituelako. Horrez gain, errefuxiatu-estatusa aitortzen zaien pertsonen baldintza gutxiago bete behar dituztela aurreikusten da, baina aitortzen ez zaien pertsona migratuei baldintzak gehiegizkoa dira. Horrek, pertsona migratuen artean diskriminazioa sortzen du eta, gainera, Eusko Jaurlaritzaren politika publiko eta sozialetan dagoen arrazakeria instituzionala birproduzitzen du.

Esan genezake, lege berriak jendarte-**antolaketaren eredu familista eta paternalista indartzen duela, eta ez duela konponbiderik eskaintzen lurralde horretan bizi diren gazteen emantzipaziorako eta babes sozialerako**. Kontrara, aukerak burokratizatu eta eskubideak oztopatze ditu; horrek gazteen pobretzea areagotzen du eta ez ditu aintzat hartzen kolektibo horren bazterketarekin lotutako arazo psiko-sozialak.

■ MATXISMO INSTITUZIONALA

Eusko Jaurlaritzak erreproduzitzen duen egitura heteropatriarkal, kapitalista eta arrazistaren baitan, **familia monogamo eta nuklearra da babes soziala jasotzen duen entea**. Eredu honetan, soilik familia ez denean gai gizaki guztiok behar ditugun zaintza eta babesa emateko, orduan sortzen da jarduteko erantzukizuna erakunde publikoetan.

Hala ere, ikuskera sozioekonomiko guztiz moralizatzaile horrek, **zaintza, enplegu eta errenten banaketa desorekatuan** oinarritzen denak, familien baitan edota bizi eta lan egiten den etxean gertatzen diren askotariko indarkeria matxistak betikotzen ditu.

Illo horretan, azterlan honetan nabarmentzen diren **lege berriaren elementu bereziki kezkagarri guztiek eragin handia dute emakumeen bizi- eta lan-baldintzetan**, hala nola: bizikidetzaren unitate desberdinetan bizi diren pertsonen aplikatuko zaien beharazko indize zuzentzailea, bizitza independentea frogatzea, gutxienez 3 urteko errolda aldia, bikote-harremana gisa hartzea norbaitekin 2 urte baino gehiagorako bizi-erregimenetik eta abar.

Aztertzen ari garen legeak indartzen duen matxismo instituzionalerako atal propio bat sortzearen arrazoa da, hain zuzen ere, araudian agertzen ez diren existentzia-baldintzak nabarmentzea, kanpoan geratu eta jasotzen ez direnak.

Etxeko langile eta zaintza arloko langileekiko begirunerik eza

Kapitalismo heteropatriarkal eta kolonialean oinarritutako produkzio eta erreproduzio modu baten ondorioz etxeko langileen eta zaintza arloko langileen eskubideak urratu dituzte, **DSBEn lege berriak ez du kontuan hartzen gure lurraldean emakume askori eragiten dien errealitate hori**¹⁸.

Oso larria da ustez inklusiorako eta diru-sarrerak bermatzeko eskubidea arautzen duen lege batek berariaz kontuan ez hartzeaz gain, arauan tipifikatutakotik askok beren bizi-baldintzak eta lan-baldintzak are gehiago zailtzea ahalbidetzea, eta pertsona horiek babestera bideratutako neurriak ez aurkeztea.

Isiltasun interesatu horrek baztertu egiten du, baita ere, ordain dela gutxi Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legearen aldaketa¹⁹; izan ere, gaiari dagokionez nahiko mugatua bada ere, aurrera egiten du langile horiek historikoki izan duten eta oraindik ere jasaten ari diren araudiaren ikusezintasuna gainditzeko.

Kontziliazio eskubiderik ez

Lege berriaren 45. artikulua aurrerapen gisa aipatzen du kontziliazioa, baina ez du aurreikusten lanaldi-murrizketa edo bestelako lan-munduan txertatzeko neurrien onuradun diren emakumeentzat zigorgarriak izan daitezkeela adinekoak, mendekotasun graduren bat duten pertsonak edo 14 urtetik gorako adingabeak zaintzeko neurri hori hartzen badute.

18 Gogoan izan behar da, gaur egun, 27.883 pertsona ageri direla Gizarte Segurantzaren Etxeko Erregimenean kotizatzen. Horietatik % 95 emakumeak dira eta % 43 atzerritarrak. Zifra hori euskal lan-indarraren % 3 da, gutxi gorabehera. Garrantzitsua da azpimarratzea estimatzen dela etxeko eta zaintzako langileen % 30 ez daudela alta emanda, eta, datu zehatzik egon ez arren, 2014an 240 etxek zutela lan hori. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu: <<https://www.elcorreo.com/economia/problemas-empleadas-hogar-20220911205648-nt.html>>

19 Informazio gehiagorako, araudiaren 38. artikulua kontsultatu: <https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-4849>

Gauza bera gertatzen da prestazioa eteteko aukerari dagokionez enplegu-eskaintza bati uko eginez gero; izan ere, 48. artikulua arabera, zaintza ez da eskaintza ukatzeko justifikazio izango, 14 urtetik gorako pertsonak edo, nahitaez, afinitate edo odolkidetasuneko bigarren mailara iristen ez diren adinekoak zaintzeko kasuetan.

Gogoratu behar da, Langileen Estatutuaren 34.8 artikulua erreformatu ondoren, **langileek familia eta lana bateragarri egiteko eskubide eraginkorra dutela**, hitzarmen bidezko erregulaziotik bananduz, erreformaren aurretik eskatzen zen bezala. Ondorioz, langile guztiek eskubide generikoa dute familia eta lana bateragarri egiteko eskubidea eskatzeko, eta berariazko eskubide bat 12 urtetik beherako seme-alabak dituztenentzat, baldin eta kontziliazio beharra justifikatzen badute. Horrek ez du eragozten 12 urtetik beherako seme-alabak zaintzeaz bestelako familia-beharrengatik baliatu ahal izatea eskubidea.

Familia-bizitza bateragarri egiteko eskubidea zentzu zabalean ulertu behar da, DSBE jasotzen duen langilearekin bizi diren pertsona guztiak barne. Horregatik, **lege berriak dakartzan mugak (batez ere familia-loturetan oinarritutakoak eta adin-tarte jakin batzuetara murriztutakoak) prestazio soziala eteteko arriskua ekar dezake. Alegia, zaintzeko eskubidea eragozten da** lanaldiaren antolaketa eta iraupena doitzea eskatzen duten familia-arrazoak daudenean. Kontziliazioaren arloa kontuan hartuta, lege berria atzerapauso larria da.

"Etxeko indarkeria" bezalako terminoak erabiltzea

Bereziki kezagarria da "genero-indarkeria" edo "etxeko indarkeria" bezalako terminoetara etengabe jotzea. Ideologiaz betetako orokortze terminologikoak indarkeria matxistaren izaera estrukturala zalantzan jartzen du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legean lehen atalean jasotzen bada ere.

Gainera, Berdintasunerako Legearen 50. artikuluan, **indarkeria instituzionala emakumeen aurkako indarkeria matxistaren baitan sartzen da**. Indarkeria matxista, aldi berean, "giza eskubideen urraketa bat da, gizarte-arazo eta osasun publikoko arazo handi bat", eta horregatik, euskal botere publikoek emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatu behar dute. Zentzu horretan, Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitu, hari kontra egin, erreparatu eta ezabatzeko xedea duten politikak berdintasun-politiken esparruan kokatu behar dira. Aldatu berri den lege honek, bere muga guztiak gorabehera, genero-ikuspegiaren eta ikuspegi feministaren garrantzia indartzen du.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren²⁰ 15. artikulua, halaber, adierazten du **emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren printzipioa kontuan hartuko dela botere publiko guztien jardunean, zeharkakotasun-izaerarekin**. Beraz, Administrazio Publikoek printzipio hori modu aktiboan barneratu behar dute, beren arau-xedapenak hartzean eta gauzatzean, politika publikoen definizio eta aurrekontuen eremu guztietan, eta beren jardura guztien garapenean.

Honenbestez, **indarkeria matxista heteropatriarkalaren erantzukizuna emakumeengan ezartzen duten terminoak erabiltzea, DSBEren lege berrian aurreikusten den bezala**, kontrako norabidean doa, izan beharko lukeen ikuspegi sistemiko, integral eta transbertsalaren aurka doa.

20 Informazio gehiago: <<https://www.boe.es/buscar/pdf/2007/BOE-A-2007-6115-consolidado.pdf>>

■ MIGRAZIOA ETA ASILO- ETA BABES-ESTATUSA DUTEN PERTSONAK

Lege berriak onartu egiten du errefuxiatuen aitortza²¹, 17. artikularen bidez. Artikulu horretan aitortzen da, halaber, gizakien salerosketaren, sexu-esplotazioaren, indarkeria matxistaren eta babes-sistemaren mendeko adingabeen biktimak ere izan daitezkeela DSBEren hartzaile eta titular.

Asimetriak eta hierarkizazioa pertsona migratuen artean

Egia da legeak aurrera egiten duela prestazioa eskuratzeko aukera ematen duen neurrian, erroldan antzintasun-irizpiderik gabe, 18 urte baino gehiago izanik eta bizitza independenteko aldia egiaztatu gabe. Hala ere, **kategoriak sortzen ditu babes soziala behar duten pertsonen artean eta pertsona migratuen kolektiboaren baitako asimetriak hierarkizatzen ditu.**

Legeak aditzera ematen du errefuxiatuak “lehen mailako kategoria” direla, gainerako migratuak ahazten dituen bitartean. Alde batera uzten du migratzea giza eskubidea dela, eta gure lurraldean pertsona migratuen errealitatea askotarikoa izan arren, pobretzea, prekarietatea eta eskubideak baliatzeko oztopoak adierazgarriak eta etengabeak direla.

Gainera, irizpide, betekizun eta protokoloei dagokienez, asilo- eta babes-prozesuak oso grisak izaten ari dira non desberdintasun gehiegi ikusten diren jatorri geografikoaren arabera. Nolabaiteko **erregularizazio selektiboa salatzen ari da, pertsona asko errefuxiatu gisa babesteko estatus juridikotik kanpo uzten dituenen**. Beraz, errefuxiatuen kolektiboaren baitan ere, lege honetan adierazitako asmoak oso aurrerapen mugatuak eta partzialak dira.

Babes-sistemaren zati bat gazteei ematea mugatzea

Bestalde, nahiz eta positiboa izan adingabeen babes-sisteman egon diren, arau-hausleei jendarte- eta hezkuntza-arreta eman dieten edo bizitza independenterako prestakuntza-programetan egon diren gazteak aintzat hartzea, beste behin ere, **zerbitzu horietarako sarbidea araudiaren mende dago, eta horrek praktikan pertsona asko kanpoan utz ditzake.**

Gure lurraldean gora egin dute irregulartasun-egoerek, eta legezkotasunik gabeko eremuak aurki ditzakegu, non inoren kargura ez dauden **gazte asko erakundeen babesetik kanpo geratzen diren**. Babes-sistemetatik igarotzen ez diren edo bigarren mailako babes-sareek arreta eskaini ezin dieten gazteak, edota, sartzen direnak 18 urte betetzearekin batera kanpoan geratzen dira, haien ibilbideen jarraipenik batere egin gabe. **Aipaturiko hau, gainera, indarrean dagoen Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren Kulturarteko VI. Planaren²² printzipio eta aginduen aurkakotzat jo daiteke.**

Azken batean, asilo- eta babes-egoera eta inoren kargura ez dauden adingabeen egoerez harago, aukera galera larria da lege honek ez aurreikustea mekanismoak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskubide erreala izan dadin baldintza jakin batzuk betetzen dituzten eta jendarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden kide migratu guztientzat, haien estatus juridikoaz edo jatorri geografikoko lekuaz harago.

21 Lege berriaren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, errefuxiatua babes subsidiariorako eskubidea aitortu zaiona da, edo eskaera ebatzi bitartean asilo-eskaera edo nazioarteko babesa izapidetzeko onartua izan dena.

22 EUSKO JAURLARITZA. Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025). Hemen eskuragarri:<https://bideoak2.euskadi.eus/2022/02/22/news_75231/VIPLAN_INTERCULTURAL_es.pdf>

■ INKLUSIOAREN ARLOKO EBALUAZIOA, IKERKETA ETA BERRIKUNTZARAKO ORGANOA

Lege berriaren 147. artikulua araberak, organo hori **pertsona bakarrekoa izango da, eta haren titularra "inklusioko politiken azterketa- eta ebaluazio-gaietan ospe handia duten" pertsonen artean izendatuko da.** Horrek sistemaren zati izango den organismo bat sortzea ekarriko luke, aditu bakar batek osatua, beraz, ez lukeena herritarrekin aztertu edo kontrastatu beharko, eta ebaluatu ahal izango duen bakarra izanik.

Gainera, 148. artikulua dio organo independentea izango dela, baina **Eusko Jaurlaritzak izendatuko duela.** Horrek pentsarazten digu organo hori gehiago bideratuko dela politika publiko eta sozial eskasa justifikatzera, **zalantza sortzen duen itxurazko objektibotasun batekin eta jendartearen parte-hartzerik gabe.**

Eginkizun horiek betetzeko erakunde/organoko berri bat sortu beharko balitz, zalantzarik eta lege berriak behar bezala justifikatzen ez duena, pertsonak parte hartu beharko lukete, kontuan hartuta askotariko baldintza eta parte hartzeko aukeretan; **politika horien funtzio sozialaren gardentasun eta zentralitate handiagoa bultzatuz.** Planteatzen den bezala, organo hori politika publiko eta sozialen plangintzan eta ebaluazioan **parte hartzeko pertsonak duten printzipioaren eta eskubide aitortuaren aurkakoa da.**

■ ESKUBIDEAREN ETETEA ETA IRAUNGITZEA

Lege berriak gaur egun aplikatzen den zigor orokorrari eusten dio: oinarri juridikorik gabe, prestazioa hilabete batez eten daiteke arrazoa gertaera, ekintza edo ez-egite puntualak direnean. Bestalde, **etenaldi luzeak (6 hilabete) ezartzen** ditu interpretazio arbitrario eta subjektiboen eragina duten ez-egiteen **kasu askotarako. Zigor izaerako eskubideen etetea** ikus daiteke.

Benetako bizilekua galtzea EAEn

Arriskutsua da lege berriak, 43. artikulua bidez, **EAEtik 30 egun baino gehiago eta 90 egun baino gutxiago irteteak prestazioa etetea ekar dezakeela** azpimarratzen jarraitzea. Aldi hori, atzerritar jatorriko pertsonentzat bakarrik, 6 hilabetekoa da, goragoko mailako arauak aurreikusten duenez (Atzerritartasun Legea).

Etendurak alde egin duten pertsonen dagokien banakako osagarriari bakarrik eragingo dio. Hala ere, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztiak alde egiten badute, prestazioa jasotzeko eskubidea erabat etengo da.

Kautelazko etetea

Lege berriak, 47. artikulua bidez, eragiten zituen urraketen kopurua zela eta erabiltzeari utzi zitzaion kautelazko etetearen figura berreskuratzen du.

Lege-proiektuak aurreikusi bezala, hasiera batean, prestazioa eteteko nahikoa zen arau-hauste larriak edo oso larriak egiteko arrazoen **"zantzuak"** egotea, DSBE osoaren ordainketa kautelaz eten ahal izateko.

Lege proiektuan aurreikusitako DSBE kautelaz eteteko arrazoiak (egote zantzu hutsa nahikoa izanik), ondorengo hauek ziren: Bizikidetza-Unitateko kideak EAEtik 90 egun baino gehiago egotea kanpoan urte naturalaren baitan; erantzukizunpeko adierazpenari erantsitako edozein datu zehaztugabea, faltsua edo ez aipatua izatearen zantzuak; eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea; Lanbidek bere kabuz zehaztutako hitzordura ez agertzea; edota hartzaileari egotz dakioken arrazoren batengatik prestazioaren zenbatekoa zehaztea ezinezkoa denean.

Azkenik, onartu den legean **ezabatu egin da, kautelazko etetearen arrazoen artean, Lanbidek alde bakarrez ezarritako hitzordura ez agertzea**. Hala ere, kautelazko etetearen figura bere horretan mantentzeak eskubideen urraketa larria dakar. Are gehiago, hain hautazkoak eta arbitrarioak diren egiaztapenen bidez inposatzen delako.

Lege berrian, Eusko Jaurlaritzak **"zantzuen" ordez "irizpen-elementu nahikoak" jarri ditu pertsonen biziraupenerako funtsezko gastuak ordaintzeari lotutako prestazio bat kautelaz etetea justifikatzeko**. Eta horrek berdin jarraitzen du arbitrarioa, zehaztugabea eta problematikoa izaten.

Hutsune juridikoak, aporofobia eta arrazakeria instituzionala

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eteteari eta iraungitzeari buruzko atalak ez du askorik definitzen, eta beste sistema batzuetan ez bezala, **gehiegizko kezka erakusten du hartzaileen mugimenduaren eta askatasunaren kontrolaren inguruan**. Kezkagarria da zehaztasun-falta, faltsukeriaren edo ez-egiteen zantzuak aztertzea nori dagokion ez erabakitzea. Aldi berean, justifikazio gisa erabiltzen du, arrisku-egoeran eta jendarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen bizi-premiak asetzera bideratutako prestazioa eteteko.

■ ZIGOR ARAUBIDEA

Asko dira egungo legeak DSBE jasotzen duten pertsonen bizitza gehiegi kontrolatzeko eta ikuskatzeko erabiltzen dituen mekanismoak. **Neurriz kanpoko zigorrak eta arau-hausteak aurreikusten ditu**, eta prestazioak eteteko edo horietara sarbidea ukatzeko aldiak ezartzen ditu; badirudi pertsonak babes-sistematik kanporatzera bideratuago dagoela, pertsona horiek inklusiorako laguntzera baino.

83. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, **kontrol-prozedurak 6 hilabeteko iraupena izango du gehienez**, eta dokumentazioa aurkezteko edo bertaratze eskakizunarekin hasiko da. Tramitazioa, ahal dela, telematikoa izango da, baina nola egingo den jakiteko xehetasunak, berriz ere, etorkizuneko araudi baten esku geratuko dira.

Aipatutako birtualtasunagatik gehitutako arriskuez harago, oso larria da zigorra, eskubideen etetea eta iraungitzea ekar dezakeen mekanismo bat hasieratik zabalik ez egotea legebiltzarrean eztabaidatu eta eztabaidatzeko.

Etxez etxeko ikuskapena

Bereziki larria da lege berriak, 94. artikuluan xedatutakoaren arabera, ezartzea **Lanbideko teknikariak hartzaileen etxeetan sartu ahal izango direla alde zuzeneko baimen judizialik gabe**, "era guztietako egiaztapenak eta edozein ikerketa-, azterketa- edo frogagintza egiteko".

Legeak nabarmentzen duenez, bizilekura sartzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Titularraren adostasun aske eta kontzientea, edo, hura ez balego, bertan bizi den adin nagusiko pertsona batena. Berariaz eman beharko da eta agiri bidez jaso.
- Adostasunik ezean, baimen judiziala eskatuko da.

Etxez etxeko ikuskapena egiteko pertsonen baimena eskatzeari dagokionez, garrantzitsua da nabarmentzea DSBE jasotzen duten pertsonen errealitate ezaugarritzen duen zaurgarritasuna dela eta, askotan, pertsona horiek ez dutela botere-abusu horri uko egiteko benetako aukerarik.

Zigortzeko ahalari buruzko 101. artikulua arabera, Lanbidek esleituta dauzkan ikuskatzeko eta zaintzeko lana oztopatzea eta laguntzeko erresistentzia egitea arau-hauste larritzat joko da. Dударik gabe, derrigortzeko eta onarpen askea murrizteko mekanismo argia da.

Gainera, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako martxoaren 3ko 1/2022 Legeak, 50. artikuluan jasotzen du, eskubideen errespetuaren, babesaren eta sustapenaren arloko esku-hartzeek emakumeen intimitatea, irudia eta bizitza pribatua babestu beharra; baita inplikaturako erakunde publikoekiko harremanetan onarpen aktiboa bermatzeko beharra ere. Lege berriak etxetik etxe ikuskatzeko aurreikusten duen ahalmena, **instituzioen indarkeria matxistaren aurkako borrokaren ikuspegitik, eztabaidagarria da, eta salatzea merezi du.**

Pertsona bat baino gehiago bizi den bizilekuen kasuan, etxebizitzetan sartzeko onarpena aztertuta, jurisprudentzia ez dago argi pertsona bakar batek baimentzea nahikoa izango litzatekeen ala ez sartu ahal izateko. Konstituzio Auzitegiak berak adierazia du pertsonetako batek uko egin diezaiokeela, bestearen kaltetan, interes kontraerriak badituzte, prozesu penal

bat, kasu. **Pertsona bakarrekoak ez diren etxebizitzetan onarpen** eskakizunari dagokionez, lege berriak bizilekura sartzeko aukera ematen du bertan bizi den adinez nagusiko edozein pertsonaren baimentze hutsarekin; berriz ere, segurtasun juridiko gabezia larria sortzen du.

Era berean, kezkarria da, lan-eskubideen ikuspegitik, etxebizitza partikularretan garatzen diren enpleguen kasuan: "etxebizitzaren bortxaezintasunaren" printzipioa nagusitzen da eta **ez dira ikuskatzen etxeko langileen zein zaintza arloko langileen baldintzak, etxeetan lan egiten duten eta bizi diren aldetik**. Hala ere, prestazio sozialetara sarbidea kontrolatzeko, bizilekuetara sartzeko aukera ematen da. Eskubide murriztaile baten adibidea da hori, betebeharrak bermatzaile baten paraleloa. Zeren arabera, zergatik eta norentzat, Administrazioaren aurpegi ezberdinak agerian geratzen dira.

Kontuan hartu beharreko beste elementu garrantzitsu bat **Lanbideko langileek horrelako ikuskapenak egiteko izan dezaketen gaitasuna eta prestakuntza teknikoa da**; izan ere, etxe ikuskapena ez da administrazio-ekintza hutsa, baizik eta pertsonen beren intimitatea eta eguneroko bizitza garatzen duten ingurunean gauzatzen den elkarrekin dialogikoa baizik. Horregatik, gizarte-langileak dira mundu subjektibo eta intersubjektibo horrekin konektatzeko gaituta dauden pertsonak. Gizarte Lanaren eremuan egiten diren etxeko bisiten arrazoiak bat pertsonen egunerokotasunarekin harreman zuzena izatea da, eta txertatuta dauden jendarte-egoerak zehaztea eta zabaltzea.

Honen guztiagatik, ikuspegi bermatzaile, babesle eta, beraz, askotariko errealitate sozialen konplexutasunei aurre egiteko gai den ikuspegi batetik oso profesionalizatuta ez badago, **etxeko ikuskapenak erraz bihurtzen dira gehiegizko kontrol-, estigma- eta jazarpen-mekanismo**.

Ezin da ahaztu **bizilekuaren bortxaezintasuna oinarritzko eskubidea dela**; Konstituzioaren 18.2 artikulua, Konstituzio Auzitegiaren eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia-doktrinak babestua, baita Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren araudiaren (bereziki, 1950eko Erromako Hitzarmena) eta giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat itunen arabera. Aurreikuspen horietan guztietan, delitu penalak eginez gero ere, ez da baimentzen bizileku batera sartzeko. Are gehiago inklusiorako eta babes sozialerako administrazio-ikuskaritzako jarduerak bat denean.

Azken batean, Eusko Jaurlaritzaren inklusiorako eta babes sozialeko politika bideratzen duen pobreziaaren kriminalizazioaren historia ezagututa, eta lege honen hainbat ataletan ageri diren oinarri arrazistak zein klasistak aztertuta, Lanbideko etxeko ikuskapena egiteko duen eskumena, **arau honen xedearen interpretazio hedakorrean oinarrituta, eskubideen urraketa argia da**; barruan duen **legezkotasunik eza** ere alega daiteke.

Pertsona atzeritarren mugaz gaindiko mugimenduen kontrola

Migrazioaren kriminalizazioa ere joera bat da lege berria osatzen duten hainbat elementutan. zigor-araubideari dagokionez, bereziki **sektore publikoko erakundeei informazioa emateko betebeharrari** dagokionean nabaritzen da, esaterako.

88. artikulua arabera, Barne Ministerioaren betebeharra da Lanbideri helaraztea atzeritarren egoitza-baimenen emate, luzatze edo aldatze datak, bai eta mugaz gaindiko mugimenduen berri ematea ere.

Oso larria da araudiak **migrazioarekin eta atzeritartasunarekin lotutako kontrol espezifikoak** egitea; izan ere, aparteko kontrolak sortzen ditu, behar bezalako oinarri juridikorik gabe, atzeritar jatorriko pertsonak izate hutsagatik. Lege berriak arrazakeria estruktural eta instituzionala iraunarazten duen beste adierazpen bat.

Erantzukizunpeko adierazpena

Lege berriaren 79. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, DSBE eskatzen duten pertsonak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango dute eskabidearekin batera. Bertan, beren erantzukizunpean adierazi beharko dute prestazioa jasotzen duten bitartean betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen dutela.

Administrazioak telematikoki egiaztatu ezin dituen edo esku artean ez dituen dokumentuen bidez egiaztatu behar diren betekizunei dagokie, botere publikoari esleitzen zaizkion kontrol- eta ikuskapen-ahalmenei kalterik egin gabe.

Kezkagarria da Administrazioak dokumentazio eta informazioa eskuratu eta kontrolatzeko behar adina mekanismo izan arren, lege berriaren 80. artikulua aukera ematen duela, **erantzukizunpeko adierazpena egonez gero**, eta prestazioa jasotzeko **baldintzetako batzuk betetzen ez badira, DSBE aitortza galarazteko**, egintza horren aurka, gainera, ezingo da errekursorik jarri.

Gainera, 83. artikulua arabera, kontrol-ahalmenari kalterik egin gabe, Lanbidek **aitortutako prestazioen berehalako kontrolak egingo ditu ausaz**, bereziki erantzukizunpeko adierazpen bat dagoen kasuetan.

Lege berriaren zioen azalpenaren arabera, *“proporzionaltasun hertsiko”* parametroa da, *“Administrazioak eskatzaileen adierazpenetan jartzen duen **konfiantzara**”* bideratuta. Nabarmentzen du erantzukizunpeko adierazpenek adierazten dutela *“hartzaileenganako konfiantzaren aitortenik handiena, bai eta hartzaile horiek **erabateko erantzukizuna** bereganatuko dutela ere, aitorten horren ondorioen garrantziari lotuta”*.

Pertsonen deklarazioan hainbesteko konfiantza badago, zergatik daude gehiegizko kontrol-, ikerketa- eta zigor-mekanismoak? Zer eskubide aurreikuspen eta berme eskaintzen du Administrazioak konfiantzazko aldeko harremana eratzeke? **Konfiantzatik urrun, badirudi erantzukizunpeko adierazpena pobreziaaren kriminalizazioa justifikatzeko beste mekanismo bat dela**, oraingo legearen ezaugarri bereizgarria.

Beharrezko kooperatzaile figura berreskuratzea

Zigortzeko ahalari dagokionez, egungo legeak 99. artikuluan, beharrezko lankidetzaren figura problematikoa berreskuratzen du, bere horretan izendatu gabe. Neurri horrek aukera ematen **du arau-hauste izendatu eta DSBE jasotzen ez duten beste pertsonak zigortzeko**.

Zirriborro zaharretik ezabatu egin da beharrezko kooperatzailearen kontzeptua, kontzeptu penala baita, eta, beraz, erabat desagokoa arau honetan; baina **langileen arteko elkartasuna zigortzen eta kriminalizatzen duen ideologia mantentzen da**.

Lege berriak ziurtat jotzen du langileen eta prekarietate-egoeran dauden artean elkarri laguntzeko jokabideak **iruzur egiteko asmoz** gertatzen direla. Berriz ere, non dago erantzukizunpeko adierazpenaren neurria justifikatzeko alegatutako konfiantza? Helburua, argi eta garbi, Eusko Jaurlaritzak bermatzen ez duen eskubide subjektiboa baliatzeko beste pertsona batzuk babesten dituztenak mehatxatzea eta hertsatzea da.

Laburbilduz, **zigortzeko lege-ahalegina da, Pobreziaaren eraginpean dauden pertsonak egiten ez dituzten Administrazioaren aurkako beste jokabide kaltegarri batzuetan ikusten ez den bezala**. Har dezagun **iruzur fiskalen**

kasua, adibidez, askotan bertokoak diren pertsona zuriek eta eta euskal politika- eta enpresa-bizitzatik gertu daudenek egiten baitituzte. Klase soziala, azalaren kolorea eta nazionalitatea ondo zehaztuta dituen eskubide selektiboen murrizketa.

■ ONDORIOAK

Pobretzearen estigmatizazioa eta ikuspegi partziala

Lege berriak pobrezia buruzko datuen irakurketa interesatua eta partziala egiten du; prekarietatea eta jendarte-bazterkeria areagotzen ari dela alde batera uzteaz gain, babes sozialerako politiken hartzaileak diren pertsonen estigma areagotzen du, bizi duten arrisku-egoeraren errudun eta erantzule bailiran. Pobretzea eragiten, hedatzen eta sakontzen duten egiturazko prozesuen ihesa elikatzen duten diskurtso politikoak eta erretorika juridikoa.

“Laguntzetan”, eta ez eskubideetan, oinarritutako eredu asistentzialista

Lege honetako prestazio sozialak ez dira eskubide gisa planteatzen, ezta langile pobretuek eskubideak eskuratzeko baldintzak sortzeko zubi edo apustu sozial gisa ere. Era berean, hartzaileak ez ditu subjektu proaktibotzat hartzen, autonomia eta agentzia gaitasuna izan arren aukerak baino ez zaizkienean falta. Aitzitik, pertsona pobreen mehatxu, kostu eta gastu defizitario iruditeria elikatzen du. Laguntzetan oinarritutako eredu bat da, prestazio soziala mesede edo, “pertsona pobreei laguntzera bideratu” ekintza filantropiko bat balitz bezala, eta ez kapitalak etengabe langileen aurka egindako espoliazio guztiagatik beharrezko kalte-ordain gisa.

Bazterketa digitala, linguistikoa eta beste diskriminazio mota batzuetan sakontzea

Lege berriak indartu egiten du dagoen bazterketa digitalaren arrakala, eta zapalkuntza- eta desberdintasun- ardatzak sakontzen ditu. Burokrazia birtualak, formularioen formatuek zein ordenagailurako eta konexiorako sarbideak, denboraz eta formaz, kolektibo sozial jakin batzuetako pertsonak baldintzatu eta baztertzen ditu. Gaztelaniaz gain beste hizkuntza batzuen erabilera bermatzeko borondate politikorik ezak, arretaren deshumanizazio eta beharren homogeneizazio prozesuak sustatzen ditu, formulario birtualetan sartu behar dira. Pertsonak jada ez dute historia, lurraldetasun eta bizi-ibilbide bat; aitzitik, espediente-zenbaki bihurtzen dira, tratamendu algoritmikoari lotutako kode hutsa.

Familia monogamoa eta nuklearra, babes sozialaren bermatzaile

Bizikidetzaren unitateen arloko aldaketek erakusten dutenez, Eusko Jaurlaritzak proposatutako ereduak babes sozialaren bermatzaile estatusa familia monogamoan eta nuklearrean ezartzen jarraitzen du. Familia inklusiorako politika publiko eta sozialen beharrezko eremua balitz bezala. Legea zaintza, enplegu eta errenten banaketa desorekatuan oinarritzen da, familien baitan eta bizi eta lan egiten den etxeetan gertatzen diren indarkeria matxistak betikotzen ditu. Gainera, langileen arteko elkartasuna kriminalizatzeko mekanismo zitalak aurreikusten ditu.

Prestazioen murrizketa eta 2008ko legea indargabetzea

Prestazioen zenbatekoak kalkulatzeko moduan izandako aldaketa sakonak eskubideen erabateko atzerakada dakar. Lege berriak erretorika juridikoa eta finantza-maniobra erabiltzen ditu jasotako zenbatekoen murrizketa nabarmena faltsutzeko, 2008ko legeak aurreikusitako balio eguneratuekin alderatuta. Gainera, lehendik ere betetzen ez zen lege hori behin betiko indargabetzen du. Arrisku- eta pobrezia-egoeran dauden gero eta pertsona gehiago alde batera uzteaz gain, lege berriak baztertu egiten ditu HEHn aspaldidanik aldarrikatzen diren diru-sarrera duinen eskakizunak.

BGDSren kudeaketa eta EAJk itundutako eskumen autonomikoa murriztea

Lanbidek BGDSren kudeaketa bere gain hartzeak, DSBEren aurretik eta EAJk Madrilen hitzartuta bezala, ezkutatu egiten du Autonomia Estatutua onartu zenetik 40 urte baino gehiago igaro ondoren Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoaren kudeaketaren transferentzia betetzeke jarraitzeak dakarren porrota. Manipulazio erretoriko eta juridiko horrek, euskal

langileen lan-eskubideei eta eskubide sozialei ez ezik, gure lurraldean subiranotasuna eraikitzeari ere ondorio larriak ekarriko dizkio.

% 15eko beheranzko indize zuzentzailea eta eskubide subjektiboen urraketa hirukoitza

Etxebizitza berean bizikidetzat unitate bat baino gehiago dagoenean indize hori aplikatzea, DSBEn onuradun izan edo ez, EAEn aurreikusitako eskubide subjektiboen urraketa hirukoitza da (etxebizitza, inklusioa eta diru-sarreraren bermea). Batez ere etxebizitza partekatu behar duten pertsonen eragiten dien mekanismoa. Errealitate gero eta handiagoa da gure lurraldean, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako etxebizitza-politikek higiezinaren espekulazioa elikatzea eta jabe handiak zein funts transnazionalak aberastera bideratzen diren bitartean. Aldi berean, langileak kanporatu eta ghetifikatzen dira.

Pertsonen arteko hierarkizazioa eta arrazakeria instituzionala

Kezkagarria da lege berriak, modu interesatuan, azpikategoriak sortzea migratuen kolektiboaren barruan, eta horiei baldintza gehiago edo gutxiago eskatzea eta kontrol eta zigor gehiago edo gutxiago aplikatzea, estatus juridikoaren eta jatorri geografikoaren arabera. Lege berrian mekanismo askok agerian uzten dute legegintza-ahalegin nabarmenak egin direla pertsona migratuak, pobretuak eta arrazializatuak zigortzeko. Eusko Jaurlaritzaren politika publiko eta sozialen plangintzaren marka historikoa da, eta bere orientazioa erabat aporofoboa, supremazista eta arrazista ezkutatzen du. Alde batetik, eskumen faltaren argudioa erabiltzen du, baina EHren lurraldearen zati batean eskubideak eskuratzeko funtsezko lege bat planifikatzerakoan, Espainiako Estatuak ezarritako migrazio-(neko)politikak indartzen ditu.

Etsaiaren Administrazio-Zuzenbidea

Lege osoan ikusten denez, baina, bereziki pobretutako eta zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen kasuan, zigor-araubidearen izaera zigortzaile eta kriminalizatzailea da araudi honen ildo nagusia. Araua, eredu heteropatriarkal, kapitalista eta arrazistaren berezko desberdintasun sozial historikoei aurre egin beharrean, zigor eta penalizazio mekanismo desberdinak sortzen ahalegintzen da. Lege hau, beraz, "etsaiaren Administrazio-Zuzenbidearen" egituraketa gero eta handiagoaren adibide garbia da, "etsaiaren zuzenbide penalean" oinarritutako eraikuntza soziojuridikoa.

Babes sozialeko eredu indartzeko aukera galtzea

Euskal langileen bizi- eta lan-baldintzak gogortzen ari diren honetan, lege berriak Eusko Jaurlaritzaren asmo historikoa errepikatzen du: pobrezia aurre egin nahi ez izatea, baizik eta eramangarri egitea. Babes eta inklusiorako euskal ereduaren egungo erreformak, beste behin ere, gure lurraldean nahi eta behar ditugun politika publiko eta sozialen ereduari buruzko eztabaida integrala, intersektionala eta parte-hartzailea sortzeko aukera galtzen du. Argi dago horrek gaur egun EHn nagusi den eredu politiko eta sozioekonomikoa eraldatzeko borondate politikoa dakar; erreforma honetan falta den borondate politikoa.

Gure proposamena, banaketa hirukoitza: enplegua, zaintza eta aberastasuna guztientzat

LABen lortu nahi dugun eredu sozioekonomikoa enpleguaren, zaintzaren eta aberastasunaren bidezko banaketan oinarritzen da. Pertsona guztiek dute eskubidea jendarteari ekarpena egiteko enpleguaren eta zaintzaren bidez, bai eta sortutako aberastasunaz gozatzeko aukera ere, hilean gutxieneko 1400 euro gordinen errenta-soldata edota doako eta kalitatezko zerbitzu publikoak emanez. Horretarako, funtsezkoa da Administrazioak enplegurako eskubidea bermatzea, eta hala egiten ez badu, enplegurik gabeko pertsonari gutxieneko soldataren baliokidea den eta kotizatzen duen errenta esleitu behar dio. Langabezia-egoeraren erantzukizuna ez da langabearena, Administrazioarena baizik; beraz, dagokion errenta ez da porrot egin duen pertsona batentzako "laguntza bat", baizik eta enplegurako eskubidea urratu zaion pertsona batentzako kalte-

ordaina. Eredu sozioekonomiko erabat eraldatzailea, DSBE arautzen duen Lege berriak indartu egiten duen egungo eredu bidegabe eta desorekatuaren aldean.

Handwriting practice lines consisting of 24 horizontal dotted lines.

